

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1043

212/2016 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Iratxe Bengoa Alonso andrea Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertua izan da Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 2016ko urtarrilaren 8ko 11/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko urtarrilaren 22ko EHAAn (14. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, bai eta haien baldintza profesionalak «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Iratxe Bengoa Alonso andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Iratxe Bengoa Alonso andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Debarrena Erakunde Sanitario Integratuko administrazio eta kudeaketako goi-mailako teknikaria lanpostu funtzionalaren 19725 plazaren jabea da, eta Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendariaren lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iratxe Bengoa Alonso andrea Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko martxoaren 1etik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Iratxe Bengoa Alonso andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.